

Ordizian, **bi mila eta zortziko apirilaren 23an** UDALBATZARRAK **OHIKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Iñigo Manrique Cía	PP	taldea
--------------------	----	--------

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2008ko martxoaren 14ean egindako Osoko Bilkurako akta onartu.
..... 3..orria
- 2.- 2007eko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.
..... 5.orria
- 3.- Kontuen Batzorde Berezia sortzea.
..... 4.orria
- 4.- AIU 12 "Upabi" interbentzio eremua antolatzeko Ordiziako Udala eta CAFen arteko hitzarmena
..... 7.orria
- 5.- Arana kalea zabaltzeko obrak finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzahitzarmena.
..... 9.orria

AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ERREGUAK

- .- AHTren gaineko desjabetze-aktak jasotzeko lanen inguruan galdetu du, baita obren hasieraren gainean ere.
..... 10. orria

ORDUTEGIA:

HASIERA: 8,10 etan

AMAIERA: 8,35etan



Bilkurari hasiera emanik, Lehendakari jaunak honako hau irakurri du, Udalean ordezkariak duten talde politiko guztien artean adostutakoa eta bilkuran bertan daudenak, Elgoibar eta Bilboko Herriko Etxeen aurka ETAk egindako atentatuen aurkako komunikatua da.

“Bilbo eta Elgoibarko Herriko Etxeetan orain gutxi ETAk egin dituen atentatuen aurrean.

Ezin da onartu ETAk, errefusatu eta bakean eta askatasunez bizi nahi duen gizartea beldurtu eta makurtu nahi izatea.

PSEE-EErekiko (PSOE) gure elkartasuna azaldu nahi dugu Udaletik, baita izugarrikeri horien ondorioak zuzenean jasan dituzten pertsonetako ere.

ETAk desagertu egin behar du.

Ulertezina da errealitateari bizkar emanda segitzea eta bere estrategia irrazional eta anakronikoan segitzea, balizko helburu politikoak lortzeko izu-ikara erabiliz, eta are etsipengarriagoa dena, bere existentzia justifikatzeko.

ETAren ekintza hauek justifikatzen edo testuinguruan jartzen segitzen dutenei egiten diegu deia, beregana dezatela beraien erantzukizuna eta eman dezatela mina eta sufrimendua besterik ekartzen ez duen estrategia irrazionala alde batera uzteko behin betiko urratsa.

Jarraian, lehenengo aztergaiaren berri eman da.

1.-2008ko martxoaren 14eko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2008ko martxoaren 14eko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Asenjo jna.

Bere ustez dio, bilkuretako aktak, orokorrean, ez dutela baldintza berdinetan jasoten zinegotzien parte hartzeak. Zinegotzi batzuen parte hartzeak beste batzuenak baino luzeagoak dira.



Gainera, Asenjo jaunak dio, zinegotzi batzuen hitzak lehen pertsonan jasotzen direla eta beste batzuenak, berriz, hirugarren pertsonan.

Idazkari andrea

Idazkari andreak erantzun dio, batzuenak luzeagoak izaten direla, taldeko kide edo bozeramaleek idatziz edo euskarri informatikoaren bidez ekartzen dituztelako beraiek esan beharrekoa, eta osorik sartzen direla, eta idatzita dauden bezala, gainera, hau da, lehen pertsonan.

Idazkariak esan du, gainera, parte hartze hori idatziz ematen den kasu horietan izan ezik, bilkuran gertatzen diren gertaera eta hitzen laburpena jasotzeko izaten direla aktak.

Onartu beharreko bilkurari buruz, berriz, 3.puntuari "2008rako udal aurrekontuak", Asenjo jaunak Galparsoro andreari egin zion zehazpena islatzea nahi du, Ingurumeneko teknikari bat kontratatzearen gainean esan zionean 10.000 biztanle baino gehiagoko udalak badirela eta EB/Berdeak gobernatzen dituztenak eta ez dutela aipatu teknikaria.

Zuzenketa egin eta gero, akta bozkatzeari ekin zaio.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (EAJ. Miren Auzmendi ez zelako bilkuran egon)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

2.- 2007eko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Proposamena

Alkateak onartu ditu Berezko Aurrekontuaren likidazioak eta San Jose Egoitza eta Herri Antzokia erakunde autonomoetako aurrekontuenak, Gipuzkoako Toki-Erakundearen aurrekontua arautzen duen abenduaren



19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua arabera, eta likidazio horien berri ematen zaio Osoko Bilkurari.

	Aurrekontu emaitza	Diruzaintzako Soberakin garbia
Berezko aurrekontua	945.664,85	3.007.046,40
San Jose Egoitza	-2.933,25	57.213,79
Herri Antzokia	-17.187,26	10165,51

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Kontu-hartzaile jna.

Kitapenaren xehetasun laburra azaldu du

Aldi berean, esan du, 2008-04-16an Plenorako Gaien Batzordeko bileran 16ko aurrekontuaren likidazioa azaltzerakoan, aldea antzeman du kreditu-aldaketarako bolumenean, guztira 11.000 € direla eta kreditu-transferentzien 2.espedientea kontabilizatzerakoan akats bati esker izan dela.

Agerian geratu da diligenza.

Udala jakinaren gainean dago.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:

3.- Kontuen Batzorde Berezia sortzea.

Proposamena

Ordiziako Udalak, Toki-Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 116. artikulua eta Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubideko araudiko 127 artikuluen arabera, Kontuen Batzorde Bereziak derrigorrez eratu behar da, eta batzorde horri dagokio Korporazioko plenoak onartu beharreko aurrekontu eta aurrekontu kanpoko kontuak aztertzea, Toki Entitateetako kontabilitateko lege arautzaileen arabera.

Alkatearen proposamenez, Osoko Bilkurari dagokio, Kontuen Batzorde Berezia eratzea, gainerako Batzorde Informatiboetarako ezarritakora makurtu beharko da lan egiteko garaian eta Korporazioko talde politikoetako kidez osatu beharko da.

2008ko apirilaren 16ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako honen proposamena egiten da

AKORDIO PROIEKTUA.

- **Kontuen Batzorde Berezia eratu, Plenoak onartu behar dituen aurrekontuko eta aurrekontutik kanpoko kontu guztiak aztertu eta txostenak egitea izango da egiteko nagusia.**

- **Honako hauek osatzen dute Batzorde hori:**

.- Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna (Lehendakaria)

Kideak:

- .- Jon Txurruka Etxezarreta**
- .- Belen Maiza Urrestarazu**
- .- Mailaren Galparsoro Garmendia**
- .- Iñaki Dubreuil Churruca jn.**
- .- Iñigo M. Manrique Cía.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren berri eman du:

4.- AIU 12 “Upabi” interbentzio eremua antolatzeko Ordiziako Udala eta CAFen arteko hitzarmena hasiera batean onartzea.

Proposamena

A.I.U. 12 “Upabi” interbentzio eremua garatu eta kudeatzeko CAF eta Ordiziako Udalaren artean 2008ko otsailaren 29an sinatutako konpromisoaren agiriaren berri eman da.

Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian zehastutakoaren arabera, eta indarrean dagoen plangintza aldatzeko eta Eremu hori etorkizunean garatzeko bi aldeen adostasunak zehazten dituen dokumentu gisa, hitzarmen urbanistiko moduan tramitatzea dagokio.

Toki-Erregimenaren Oinarriak arautzne dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 22.2. c) artikularen arabera, Osoko Bilkurak du hitzarmen hori onartzeko ahalmena, gero GAOen 20 egunez jendaurrera jartzeko.

2008ko apirilaren 16ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako honen proposamena egiten da.

AKORDIO PROIEKTUA

- Indarrean dagoen plangintza aldatu eta A.I.U. 12 “Upabi” interbentzio eremua etorkizunean garatzeko CAF eta Ordiziako Udalaren arteko hitzarmena onatu.
- 20 egunen GAOen jendaurrera jarri, eta epe horren barruan alegaziorik aurkezteko ez balitz, behin betikotzat jo erabakia.
- Alkate andrea eskubideratu behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:



Asenjo jna.

Gogorarazi du Belen Maiza alkarte orde zegoela, Alkatea Filipinetarako bidaian kanpoan zelarik, CAF egiten ari zen obrak gelditzeko agindua eman behar izan zuela, boggyen eraikinaren segidako bi pabiloi eraikitzeke obrak. Obra horiek ez zuten baimenik.

Maiza andreak arduraz jokatu zuela esan zuen eta legearen arabera, eta esan du, gainera, CAF enpresak aginduari esana aditu ziola eta obrak gelditu egin zituela, segitzeko beste baimen bat lortu arte.

Ez zen horrela gertatu obrak gerarazteko beste agindu batean, Ikengu enpresari emandakoa, alegia, Oianguren parkean egiten ari diren obrak direla eta.

CAFekin sinatu beharreko hitzarmena dela eta, uste du, ordiziarrentzako espazioak irabazten direla (pasabidea, biala, gunee berdeak...) eta ildo horretan, Hitzarmenarekin ados dira. Hala ere, Plenorako Gaiene Batzordean entzundako hainbat arrazoi kritikatzin ditu, ANVtik datozenak batez ere, ordiziarren interesak baino CAFen interes pribatuak defendatzen zirela ematen baitzuen.

Alkate jna.

Uste du lorpenak ez direla izan obrak geldiarazteagatik. 2007ko irailaz geroztik CAFekin bilerak egin dira enpresaren egoera legeztatzeke eta orain gutxi lortu dira adostasunak.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeke aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaiene bosgarrene berri eman du:



5.- Arana kalea zabaltzeko obrak finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzaren hitzarmena.

Proposamena

Gipuzkoako Foru Aldundiak Oria Garaiko Hodi Biltzailea bukatzeko proiektuko obraren exekuzioaren berri eman da, Olaberria, Beasain eta Ordiziako adar osagarriak barne.

Aldi berean, obra publiko horren exekuzioa aprobetxatuz, Arana kalean dagoen pareta atzeratzea da Ordiziako Udalaren asmoa, eta bide horren trazatua aldatzea, udal antolaketa urbanistikora egokitzeko. Ondorioz, 4 adarraren trazatua eta 2 erreka aldatzea dakar, luzera moztuz eta exekuzio-baldintzak hobetuz.

Hori dela eta, pareta horren atzeraematea jasotzea egokitzat jo da, eta saneamendu-proiektuaren barruan, berriz, bidea aldatzea. Aldibereko exekuziorako aldatutako proiektuan sartzen diren elementuetako bat gehiago bezala eta bi Administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmena gauzatzea erabaki, kontrata bakoitzarengatik 210.269,59 euroko exekuzio-aurrekontuarekin, Foru Aldundiak egingo duena eta hitzarmeneko bi aldeek artean erdi bana ordainduko dena.

2008ko apirilaren 16ko Plenorako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako honen proposamena egiten da

AKORDIO PROIEKTUA.

*** Gipuzkoako Foru Aldundiak Oria Garaiko Hodi Biltzailea bukatzeko proiektuko obraren exekuzioaren berri eman da, Olaberria, Beasain eta Ordiziako adar osagarriak barne. Horrek dakarren Arana kaleko pareta atzera eramatea eta kalea zabaltzea, guztira 210.269,59 euro, bi Administrazioek erdi bana ordainduko dutelarik.**

*** Alkatea eskubideratu akordio hau betetzeko behar diren agiri guztiak gauzatzeko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzeginetako txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiaren amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.



Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

6.- Galde-eskaria.

- Publikoan zegoen pertsona batek galdetu du ea noiz jaso behar diren desjabetza-aktak Ordizian AHTa egiteko proiektuak eragindakoak.

Alkate jaunak esan dio prozesura guztia tramitzeko ardura ETS enpresarena dela, baina berak dakienez, oraindik ere ez zaio desjabetzeko akta horiei ekin.

Publikoko pertsona berak galdetu du ea noiz ekin behar zaio obrei. Publikoko pertsona berak galdetu du ea noiz ekin behar zaio obrei.

Erantzun zaio.



Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.